



ESKOLAKO

agenda

ARRASATEN

21

2005-2006 ikasturtean esperientzia

ENERGIA PROIEKTUA

Zer da Eskolako Agenda 21a

Ikastetxeko eta gure inguruko ingurumena kalitatezkoa eta iraunkorra izan behar da. Hori da Eskolako Agenda 21ek lortu nahi duena.

Oinarrizko hiru osagai ditu: ikastetxeko eta inguruko ingurumenaren iraunkortasuna, curriculumaren berrikuntza eta komunitatearen parte hartzea.

Modu honetan, konpromiso batzuk hartuz etorkizun hobetuko dugu denon artean. Ingurunea ezagutzea, bidegabea dena aldatu nahi izatea eta horretan lan egiteko gogoia edukitzea izango dira gure betebeharrak.

Eta kurtso honetan, zeintzuk dira PARTE HARTZAILEAK?

Eskolako Agenda 21 Arrasaten proiektua Legazpiko Ingurumen Gela (CEIDA) eta Udalako Ingurumen Eskolak (Arrasateko Udala) zuzentzen dute, eta herriko ikastetxeek parte hartu ahal dute.

Aurten aurreko ikasturtean parte hartu duten guztiak jarraitu dute proiektuan, hau da, Arizmendi Ikastola (Gazteluondo, Sta Teresa, San Viator Txiki, San Viator Handi eta Ferixalekua), Mesedeetako Andra Maria Ikastetxea eta Arrasateko Institutuko ikasleek eta irakasleek hartu dute parte, guztira 1.508 ikasle ari dira garatzen proiektua.

Kurtso honetako gaiak: ENERGIA

Eskolako Agenda 21 proiektuaren hasieran (2003an) ikastetxe guztiak euren zentroetako diagnostikoa egin zuten ingurumen arazoak detektatzeko eta aukeratzeko hurrengo urteetan landuko zuten gaiak. Energiarena hirugarren geratu zen, beraz, zaborra eta ura landu ondoren kurtso honetan energia gaiarekin egin dugu lana.

Eskoriatza eta Aretxabaletan ere gai bera landu izan dute eta hainbat lanetan herri hauetako proiektuak koordinatu izan dira.

Ikasleek egindako lana



Duela bi urte zaborraren gaia langu genuen, iaz urarena eta aurten energia gaia landu dugu. Aurtengo ikasturtean energiaren gaia landu dugu.

Asko izan dira hilabete hauetan egindako lanak eta aktibitateak, bai gure zentruetan bai herriko hainbat txokotan, baina zuek ideia bat egiteko ondoren zerrendatzen diren jarduerak adibide gisa azaltzen ditugu:

- Gure ikastetxeetako diagnostikoa egin dugu energia gaiarekin bai gela barnean bai kanpoan: bero-kuntza sistemaren azterketa, leihoen egoera, kristalak, fluoreszenteen egoera, ikastetxean gasa eta uraren egoerak... Ondorioak atera ditugu eta zentroan ere hobekuntzarako proposamenak luzatu ditugu.
- Energia berriztagarri eta ezberiztagarriak bereiztu ditugu eta bakoitzaren ezaugarriak, abantailak, desabantailak... aztertu ditugu.
- Energiaren erabilerari buruz hausnarketa egin dugu eta energiaren kontsumoari buruzko inkestak bete ditugu (etxean, kalean, ikastetxean). Jendearen sensibilizazio maila ezagutu dugu.
- Arrasatera etorri zen Energia Bizi erakusketara joan ginen, honela gaiarekiko lehendabiziko hurbilpena izan genuen.
- Donostiako Kontsumo Eskolan energiaren gaia eta beste batzuk landu genituen.
- Elgeako parke eolikora joan ginen eta bertan eza-

gutu genituen energia berriztagarri desberdinak eta ondoren haize-errotak ikusi genituen.

- Udako Ingurumen Eskolan egon ginen eta Udala auzoan energiarekin loturiko ekipamendu eta arazoak aztertu genituen.
- Arrasate herrian hainbat ekipamendu eta elementu aztertu ditugu: kaleak, farolak, tentsio dorreak, gas naturalaren eta elektrizitatearen plakak, trafikoa, kotxe eta autobusaren erabilera...

Gaia aztertu dugunean, konturatu gara energiaren gaiarekin lotutako arazoa denona dela eta denok egin genezakeela zerbait hori konpontzeko.



Energiaren arazoa ez ohiko bilkura berezian

1508 ikasle PROTAGONISTA

Sei eta hamasei urte arteko haur eta gaztetxoak izan ziren protagonista nagusiak maiatzaren 23an egindako osoko bilkura berezian; horiekin batera irakasle eta guraso batzuk ere bai.

Ekintza horretan energiaren inguruan egindako azterketaren emaitzak azaldu zizkieten udalbatzarrari. Ikasturtean egindako lanekin konklusio asko atera dituzte eta egoera hobetzeko proposamenak ere pentsatu dituzte. Eta, egun horretan, horien guztien berri eman zieten alkate eta zinegotziei. Aurrerantzean Energia gaiaren inguruan ateratako konklusioak, egindako proposamenak eta hartutako konpromisoak agertzen dira:



Herriko argiteriarekin loturiko hainbat aspektu aztertu ditugu eta hurrengo konklusioetara ailegatu gara, horietariko batzuk oso interesgarriak.

- Kaleko faroak energia ugari gastatzen dute. Egunez ere hainbat farola piztuta ikusi ditugu, adibidez Galizia kalean daudenak. Zaldibarko frontoiko argiak ere batzutan piztuta egoten dira.
- Batzuei tapa falta zaie eta beste batzuk apurtuta daude eta hori arriskutsua ere bada.
- Farolen kokapena batzutan ez da egokiena; farola batzuk zuhaitz artean daudenez argia galtzen da. Hainbat tokitan farola larregi gaude, adibidez Forum inguruan.
- Gabonetako argi-apaingarri gehiegi ikusi ditugu eta gainera gau osoan egoten dira piztuta.

Aipatutako azterketa gure herriko txokoetan (kaleak eta edifizioetan batez ere) egin ondoren, hainbat arazo konpontzeko proposamen batzuk egitera ausartu gara:

Farolak piztuta egoteko ordutegia aztertu eta farolak itzaltzeko ordua finkatzerakoan urteko garaia bereiztu (udanegua).

Gabonetako argi-apaingarri gutxiago jarri eta ordu batzuetan bakarrik piztuta eduki.

Farolen egoera kontrolatu eta apurtuta edo hondatuta daudenak konpondu behar dira.

Gaur egun merkatuan dauden kontsumo gutxiko farolak aztertu eta pixkanaka pixkanaka herrian desegokiak direnak aldatu beharko ziren.

Aipatutako guztiarekiko konponbideak bilatzeko gu ere prest gaude eta hainbat konpromiso hartzen ditugu:

- Ez ditugu etxeko eta ikastetxeko argiak piztuko behar beharrezkoa ez bada.
- Herriko farolak errespetatuko ditugu eta ez ditugu apurtuko.
- Ikastetxe eta etxeko elektrizitate-aparatuak ondo erabiliko ditugu eta behar ez ditugunean guztiz itzalita mantenduko ditugu.



Gure herrian izugarriko arazoa dugu trafikoarekin, edozein ordutan gure kaleak kotxez beteta daude eta hainbat ordutan herrian kotxez sartzea oso zaila izaten da; gure denbora galtzen dugu eta inguruarekiko oso kaltegarria da. Energia kontsumoa oso altua da. Arazo hau aztertzerakoan hainbat ondorio atera ditugu:

- Herriko edo inguruko lantegietara joateko herritarrek euren kotxeak erabiltzen dituzte; gehienetan auto bakoitzean pertsona bat doa; bakoitzak bere kotxea erabiltzen du.
- Bizikletaz ibiltzea oso arriskutsua da hainbeste kotxeekin. Gainera errepide batzuetan ia ez dago bazterbiderik. Kotxe istripuak daudenean, kristalak eta beste arrasto batzuk errepide bazterrean gelditzen dira eta txirringularien bizitza arriskuan jartzen da.
- Herriko urbanoan pertsona gutxi joaten dira, gehienak emakumeak. Urbanoak oso ibilbide luzea du eta maiztasuna oso txikia da.
- Arrasate herria hiriburuekin (batez ere Donostia eta Bilbo hiriburuekin) oso gaizki komunikatuta dago; oso autobus gutxi daude.

Aurreko guztiaz hausnartu ondoren, hauexek dira gure ekintza proposamenak aipatutako gauza guztien egoera txarrei aurre egiteko:

- Herri barnean garraio publikoa indartu, bono sistema baten bitartez, herritarrei jakinarazi eta diru laguntzak eman. Saritu garraio publikoa erabiltzen dutenei.
- Hiriburuetara joateko dauden autobus kopurua hendiru eta ordutegi zabalagoa ipini. Hori udalak ezin badu egin hitzegin dezala dagokion erakundekin arazo larri hori konpontzeko.
- Urbanoaren maiztasuna handitu eta aztertu ea beste linearen bat jar daitekeen ibilbideak hain luzeak ez izateko.

Guk ere, ikasleok, gure konpromisoak hartzen ditugu komentutako guztiarekin:


- Bide motzak oinez eta bizikletaz egingo ditugu.
- Kotxez mugitu behar badugu ahalik eta kotxe gutxien erabiliko ditugu.
- Gure etxean garraio publikoaren erabilera egitearen aldeko jarrera erakutsiko dugu.
- Autobus geltokian dauden panel informatiboak errespetatuko ditugu.
- Entrenamenduetara joateko ahalik eta kotxe gutxien erabiliko ditugu.
- Gurasoak autoak konpartitzera eta autobusa erabiltzera animatuko ditugu.

Erakusketa

irailaren 11tik 25era bitartean ikusgai

Arresi erakusketa gelan izango ditugu ikusgai ikasleek urtean sortutako hainbat materialak: tresnak, hormirudiak, argazkiak, galdetegiak...

Aukera ezin hobe energia gaia hobeto ulertu eta duen garrantzia ezagutzeko.



ERAKUSKETAREN ORDUTEGIA:
6etatik 8ak arte

Egileak:



ARRASATEKO UDALA
UDALAKO INGURUMEN ESKOLA

Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACION DEL TERRITORIO